

## **õABOKATU EUSKALDUNAKõ BATZORDEKO 2014.** **URTEKO TXOSTENA**

2014. urtean zehar hauexek izan dira ekimen azpimagarrienak:

- õAuzia Euskarazõ proiektua zabaldu da abokatuen artean. Horretarako hainbat bilera burutu ziren Bizkaiko Auzitegi-jauregi guztietan abokatuei azalduz nondik nora doan ekimen hori. Azken bilera Balmasedan izan zen, 2014ko urtarrilaren 10ean. Bilera guztietan õAbokatu Euskaldunenõ kideok parte hartu genuen. õE-toolbarraõ doako sistema informatikoa ótestu juridikoak itzultzeko oso baliogarria- hainbat abokatu bulegotan instalatu da.
  
- 2014ko ekainaren 27an õJustizia euskaraz, zergatik ezõ Jardunaldia geure Bazkuneko areto nagusian burutu zen. Ekitaldi horretan parte hartu zuten: Jone Agirre Elso, Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegiko idazkari judiziala zigor eta zibil arloetan; Juan Manuel Iruretagoyena Sanz, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 1. Atalako Magistratua; Leire Unzueta Elorriaga, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Fiskala, Loreto Cabo Maguregi, Bizkaiko Justizia Administrazioan LAB sindikatuko ordezkaria; eta Jaime Elías Ortega, Abokatu Euskaldunak batzordeko kidea. Koordinazio eta moderazio lanak Izarra Begoña Gamindek burutu zituen.
  
- 2014ko irailaren 18an atxikimendu gutun bat bidali genien Bizkaiko abokatu guztiei non hauxe esaten zitzaien: *õDakizuenez, euskararen egoera mundo juridikoan, geure Bazkunean esaterako, arduratzeko ezezik, beldurtzekoa ere bada. Horregatik, batzorde honek atxikimendua eskatzen dizu, besteak beste: - Abokatu euskaldunok nortzuk eta zenbat garen jakiteko; - Bazkuneko õdietarioõ-an euskaldun nor den berezi ahal izatea proposatzeko, horretarako zure oniritzia emanik, beren-beregi; BAZkunean eta bertatik kanpo Euskararen erabilpenaren alde indar egiteko; - Batzordeak egiten eta egin nahi duenaren berri izateko; - Batzordeari nahi duzuna helarazteko. Batzorde benetan bizi eta indartsua eratzeko, batzarretara etorri ezin diren edo nahi ez dutenen parte hartzea eta atxikimendua derrigorrezko ditugu. Arazoak arazo , aitzakiarik izan ez dezagunõ.*

Gaur egun, 120 abokatu inguruk atxiki idazkia eman dute eta geure batzordea indartzeko urrats garrantzitsutzat hartzen dugu.

- 2014ko Urriaren 7an Europako Kontseiluko hainbat aditurekin bildu ginen Bilbon, haiek ezagutu nahi zutelako zein den gaur egun euskararen erabileraren egoera justizia auzitegietan, eurogutunaren 9. artikulua aplikazioan. Bileraz gain, txosten bat bidali genuen non esandako legearen urraketa jakinaren gainean jartzen genuen.
- 2014ko azaroaren 27an afari ó kolokio bat izan genuen. Gonbidatua Zelain Nikolas abokatu izan zen. Erabakitze eskubidea egikartzeko baldintzei buruz aritu zen eta oso arrakastasua suertatu zen.
- 2014ko abenduaren 18an ETB-1eko õTribuaren Berbakö programak õEuskara Justizia eskeö gaia joratu zen eta irakasle, epaile, teknikari, idazkari, fiskal, notari, prokuradore eta abokatuen ikuspegiak isladatzen ziren. Gu ere gonbidatuak izan ginen eta parte hartu genuen.

Bilbon, 2015eko martxoaren 18an.

õAbokatu euskaldunakö Batzordea